

EUSKAL BIZIKLETA. Irungoa Bidanian geratu zen atzean, ONCEren erritmoarekin itota

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Euskal Bizikletako lehen etapak ondorio nabarmenak utzi zituen, Eibar eta Usurbil lotu zituen saioa gogorregia ez bazen ere, oilarren artean tarterik ez zela egongo espero bazen ere. Baina egon ziren, eta nabarmenak; kaltetuena Juanma Garate izan zen. Irundarra zuhur mintzatu zen herenegun, eta baita atzo goizean ere: sasoitsu egongo zen ala ez ez zekiela. Eta, zorritzarrez, bere zalantzak egia bihurtu ziren. Lamprekoak hiru minutu eta erdi galdu zituen helmugan, Bidaniko aldapa pikoan gora ONCE-Eroski taldekoek jarri zuten erritmo gogorarekin itota.

Hiru asteko konpetizio erritmoak eta bi eguneko atsedenak bete egin zuen, nonbait, Garate. Bete ez zirenak ONCEko karreristak izan ziren. Ausardiaz jokatu zuten etapako une erabakigarrian, Joseba Belokirekin edo beste txirrindulariren batekin Euskal Bizikleta irabazteko asmoa dutela beldurrik gabe erakutsita.

ONCEk bizitu zuen erritmoa Bidanian, Iñaki Isasi Euskaltel-Euskadikoaren ihesaldia ezeztatzeko eta tropelaren babesean larri antzean zihoazenen ezina azaleratzeko, eta horrela lortu zuen Garate atzeratzea. Etumetan, eguneko azken igoean, tropelburua bizi-bizi gidatu zuten, ihesaldi arriskutsuak saihesteko. Joseba Beloki berak gogotsu zegoela adierazi zuen etapa akaberan, eta ez zuen ezkutatu Euskal Bizikleta irabazteko grinatsu dela iaz bigarren postuan bukatu ostean.

Euskaltel-Euskadi Isasi eta Landaluzerekin saiatu zen

46. kilometroan utzi zuen trope la Iñaki Isasik. Azkar egin zuen zuloa eta Alkiza gainean, ibilbide erdian, 4.10eko errenta zuen tropelarekiko. Balentria gauzatzeko itxaropentsu zen Euskaltel-Euskadikoa, multzoan mugimendu handirik ez baitzegoen.

Bidanian gora, ordea, zeharo aldatu zen egoera: ONCEk erritmoa bizkortu eta Isasi minutu bateko alde txikiarekin iragan zen gainetik. Errezilera bidan Alesandr Kolobnev errusiarak (Acqua-Sappone) egin zuen ihes, eta Isasi harrapatu zuen aurrea, Etumeta menda-

Horriilo eta Garate, txanponaren bi aldeak

Lehen etapa irabazi zuen Mapeikoak, itzulia galdu Lamprekoak



JON URBE / ARGAZKI PRESS


Pedro Horrillo, pozik, eta Iñigo Landaluze, burumakur, Usurbilen, atzoko etapa bukaeran.

tean, eta bakarrik ekin etapa garaipenaren bila. Minutu bateko alde lortu zuen Meagan, Usurbilgo helmugatik 20 kilometro-ra, baina Zarautzera bidean erori egin zen eta akabo ametsa.

Ziztu bizian, Acqua Sappone eta De Nardi taldeak kontrol lan zorrotza egiten saiatu ziren azken kilometroetan, Martin perdiguero eta Ongarato esprinterrekin etapa garaipena lortzeko asmoz, baina nekez lortu zuten helburua, Zarautzik Usurbil berteko ibilbide bihurrian eraso ahaleginek ez zutelako etenik izan. Wielinga holandarrarena (De Nardi) eta Fragniere suitzarrarena (Phonak) izan zen sendoenetakoa, baina kamutsa izan zen bikote horren ahalegina.

Azken kilometroan Pedro Horrillo (Mapei) eta Iñigo Lan-

Usurbil – Zeanuri, 171,5 km



daluze (Euskaltel-Euskadi) aha legindu ziren. Tarte horretan erasoa jotzea eta arrakasta izatea miraria da gaur egun, baina bikotea zortekoa zen atzo, nonbait, eta helmugara iristea lortu zuten. Azken metroetan Horriilo nagusitu zen, eroso, bere kirol ibilerako hirugarren garai-pena lortuta. Lidergoa ere eskratu zuen Ermukoak, baina lasai asko esan zuen ez duela ikusten

bere burua proba irabazteko lehian.

Bigarren etapa korrituko da gaur; Usurbilen (Gipuzkoa) hasi eta Zeanurin (Bizkaia) bukatu. 171 kilometro orotara, eta akabera bihurria oso. Urkiola piko (lehen maila) igoko dute helmugarako 40 kilometro geratzen direla, eta hori jaitsi eta Lamin dao gainditu beharko dute, bigarren mailakoa.

kutxa Sari Nagusia



kutxa

SAILKAPENAK

ETAPA ETA NAGUSIA

1. Pedro Horrillo (Mapei)	4.06.49
2. I. Landaluze (Eus.-Eus.)	d.b.
3. M. Perdiguero (A. Sapp.)	d.b.
4. A. Ongarato (De Nardi)	d.b.
5. Massimiliano Mori (Mer.)	d.b.
6. Mariano Piccoli (Lampre)	d.b.
7. Martin Elminger (Phonak)	d.b.
8. Dmitri Fofonov (Cofidis)	d.b.
9. C. Zaballa (Kelme)	d.b.
10. J. Odriozola (Banesto)	d.b.
11. P. Cardoso (Maia)	d.b.
12. G. Palumbo (De Nardi)	d.b.
13. J. L. Arrieta (Banesto)	d.b.
14. Fabio Testi (De Nardi)	d.b.
15. M. Gentili (A.-Sappone)	d.b.
16. Rui M. Sousa (Maia)	d.b.
17. D. Etxebarria (Eus.-Eus.)	d.b.
18. M. Serpellini (Lampre)	d.b.
19. Cezary Zamana (CCC)	d.b.
20. Joseba Beloki (ONCE)	d.b.
21. P. Fernandez (Relax)	d.b.
22. M. Artetxe (Eus.-Eus.)	d.b.
23. J. P. Rodriguez (Banesto)	d.b.
24. V. Fernandez (Maia)	d.b.
25. A. Olano (ONCE)	d.b.
26. E. Jimenez (Banesto)	d.b.
27. A. Nikacevic (Alessio)	d.b.
28. Ruslan Ivanov (Alessio)	d.b.
29. José Azevedo (ONCE)	d.b.
30. R. Ferrara (Alessio)	d.b.
31. Ch. Charriere (Phonak)	d.b.
32. R. Wielinga (De Nardi)	d.b.
33. P. Diaz Lobato (Jazztel)	d.b.
34. Iker Camaño (Phonak)	d.b.
35. B. Fernandez (Cofidis)	d.b.
36. Jorge Capitan (Relax)	d.b.
37. S. Blanco (Banesto)	d.b.
38. R. Rumsas (Lampre)	d.b.
39. M. Pradera (ONCE)	d.b.
40. J. M. Cuenca (Kelme)	d.b.
41. Marcos Serrano (ONCE)	d.b.
42. M. Zarrabeitia (ONCE)	d.b.
43. S. Gonzalez (A. Sapp.)	d.b.
44. David Cañada (Mapei)	d.b.
45. Q. Rodriguez (CCC)	d.b.
46. Pablo Soler (Mer)	d.b.
47. Dawid Krupa (CCC)	d.b.
48. José Angel Vidal (Kelme)	d.b.
49. Rui Lavarinhas (Maia)	d.b.
50. Miguel Martinez (Mapei)	d.b.
51. Ruben Lobato (A. Sapp.)	d.b.
52. A. G. de Galdeano (ONCE)	d.b.
53. F. Cabello (Kelme)	d.b.
54. C. Fragniere (Phonak)	d.b.
55. Iban Mayo (Eus.-Eus.)	d.b.
56. Ivan Parra (ONCE)	d.b.
57. Sergio Perez (Relax)	d.b.
58. L. Piepoli (Banesto)	d.b.
59. K. Pospeyev (A. Sapp.)	d.b.
72. J. Garate (Lampre)	3.30era

euskalbizikleta

kutxa Sari Nagusia
Gran Premio kutxa

kutxa

www.begira.com